

emun

Euskara eta
berrikuntza soziala

EIBARKO UDALA

IPURUA MERKATU PLAZA, AUZOKO GUNEA.



Ipuruako
Merkatu
Plaza



Lehen saio irekia (2020/02/05)

AKTA

SAIOAREN EZAUGARRIAK

- **Proiektua:** Eibarko Ipuruako Merkatu plaza biziberritzeko partaidetza prozesua.
- **Eguna:** 2020ko otsailak 5ean, Ipuruako merkatu plazan. **Orduetgia:** 18:00-20:30 artekoa.
- **Saioaren helburua:** prozesuaren kokapena eta azalpenak egitea, eraikinaren erabilerarako ideiak sortzea eta hauek espazioan antolatzeko lehen saiakera eta hausnarketa partekatuak sortzea.
- **Asistentzia:** 51 pertsona (27 emakume eta 24 gizon) hauetatik, 13 dira talde/elkarteren bateko kideak, Eibarko udaletik Ana Telleria zinegotzia, Talde sustatzaileko Maialen Araolaza, Aitziber Garmendia, Zuriñe Zelaia, Juan Mari Alberdi eta Nerea Mendikute eta Emun aholkularitzako bideratzaileak, Irati Ozaita eta Mikeldi Zeberio.

Emakumeak	Gizonak	Guztira
27	24	51

KOKAPENA

1. Kokapena

Ana Talleriak, Eibarko udaleko ogasuneko zinegotziak egin du prozesuaren kokapena eta ezaugarri nagusiak azaldu ditu.




Anak azpimarratu du prozesu hau herritar talde baten inizatibaz jaio dela eta, ezer baino lehen, hauen lan ona eskertu du. Ondoren, azpimarratu du Eibarko udalak 2019ko apirilaren 29ko plenoan aho batez onartu zuela proiektua hau babestea eta berme horrekin emango direla hurrengo pausoak. Alde horretatik, baliabideak inbertitu dira egitasmoak aurrera egin dezan.

Era berean, jendearen asistentzia eskertu du, eta adierazi du asko pozten dela aretoa hainbeste jendekin ikusteagatik.

2. Talde sustatzailearen azalpenak.

2.1. Eraikinaren historia

Egitasmoaren sustatzaileetako bat den Nerea Mendikutek eraikinaren historiari buruzko azalpenak eman ditu. Hauek dira ezaugarri nagusiak: Eraikina 1952. urtekoa da, Joaquín Domínguez Elosegui diseinaturikoa. 3 solairutan zegoen antolatuta, semisotoan arrandegiak eta gordelekua zeuden, solairu nagusiko perimetroan kokatzen ziren dendak eta solairu horren erdigunean, altura bikoitza zuelarik, baserriko produktuak saltzeko mahaia eta bankuak zeuden. Dendatxoan gainean beste solairu bat zegoen, altillo moduko bat. Eraikinak 2 fatxada nagusi ditu, bata Romualdo Galdós kalera, eta bestea, Argatxako lorategietara. Berdegunearekiko lotura duen eraikin publiko bakarra da Eibarren




2.2 Talde sustatzailearen azalpenak

Maialen Araolazak, talde sustatzailearen proposamenak izandako ibilbidea azaldu du. Eraikinarekin lotuta egitasmo bat abiatzeko asmoarekin, lehen ideiarri forma eman zioten txosten batean eta udal talde guztiei aurkeztu zieten, banan-banan 2019 hasieran. Ondoren, bideragarritasuna aztertzeko inkesta bat egin zen eta 400 herritarren partaidetzarekin. Gehiengoak babesa erakutsi zion proiektuari. Azkenik, Udaleko Osoko Bilkuran mozio bat aurkeztu zuten eta aho batez onartua izan zen Ipuruako merkatu plaza auzoko gune bilakatzea. Hortik aurrera, herritarren partaidetzarako prozesua aktibatu zen Emunekin, eraikinaren balorazio energetikoa egin Zumarperekin eta oinarritzko proiektua Zuriñe Zelaia arkitektoarekin egitea proposatu zen.



Prozesuaren ibilbidea puntuz puntu:



2.3 Prozesuaren ibilbidea

Ondoren, Emuneko bideratzaileak prozesuaren nondik norako nagusien berri eman du.

Prozesuaren **helburu** nagusiak, honako hauek dira: eraikinaren erabakiak adostea, aurrera begirako antolaketa eta kudeaketa adostea eta erabilera gida sortzea.

Horretarako, parte-hartze prozesua honela antolatzen da:

TALDE ERAGILEA



SAIO IREKIAK



Saio irekiak, 3 izango dira:

1. Saioa (otsailak 5)

Erabilera aukerak. Multzok
Baliabide eta espazio beharrak

2. Saioa (Martxoak 4)

Antolaketa beharrak eta aukerak

3. Saioa (Apirila/Maiatza zehazteke)

Koordinazioa udalarekin
Antolaketa zehaztasunak
Itxiera

SAIOAREN GARAPENA

Ondorengo lerroetan saioaren garapenaren berri emango dugu:

3. Ipuruako merkatu plazaren balio eta baldintzen panela

Proiektuak balio eta baldintza batzuk izan behar ditu. Talde eragilean, prozesuan zehar balio eta baldintza multzo bat landu da. Balio eta baldintza hauek panel batera eramn dira eta hauek saio irekian azaldu dira. Saio ireki guztietan, balio eta baldintza berriak txertatzeko aukera izango da, bai jarrita daudenak ezbaian jartzeko ere. Azpian balio eta baldintza zerrenda eta egin diren ekarpenak:



PROIEKTUAREN BALIO ETA BALDINTZEN PANELA

Talde eragilearen proposamenak:

- Aniztasuna
- Auzoak indartu
- Inklusibitatea
- Publikotasuna
- Bizitzak erdigunean
- Irisgarritasuna: kultura – baliabide publikoak
- Irabazi asmorik eza

Saio irekiko proposamenak, berriak:

- Berdintasuna
- Sostenible
- Elkar ekintza eta partaidetza sustatu
- Feminista

4. Prozesuari buruzko espektatibak jasotzeko ariketa

Prozesuari buruzko espektatibak jasotzeko, ipuruera eraikinean ibiliz eta musika bidez, 3 pertsonako taldeak egin dira. Bi errondatan, talde ezberdinetan bi galderari erantzun dira:

1. Zergatik zaude zu hemen?
2. Zer espero duzu prozesu honetatik?

Ondoren, taldeka landutako espektatiba hauek panel batean jartzeko gonbidapena egin zaie bertaratuei.



Gaiak	Jasotako espektatibak
Adina	18-25 urteko gazteei irekia 12-18 urteko gazteentzako espazio bat izatea ere Adinekoak, egunean zehar etxean bakarrik gelditzen direnak, haientzat gune eroso bat. Etxetik irten daitezen
Proiektua	Autogestioa / elkargune autogestionatua (3 post it) Kultura espazio alternatiba eta anitza Kontsumismo eta alkoholik gabeko espazio bat, ume eta helduon denbora libre partekatzeko. GAUR EGUN EZINEZKOA!!!
Prozesua	Ume eta gazteei galdetu Prozesua bukatzean martxan egotea eta herritarren eskuetan Prozesuaren ideiak kajoi batean ez gelditzea
Hizkuntza	Euskara promozioa Euskara ongi erabiltzen ez dogunak kontuan hartu eta ez dakitenak Preferencia: bilingue (traducción simultánea)
Adibide posibleak	Hirikilab Tabakalera
Balioak	Batak besteari euren jakintzak elkarbanatu Umeentzat ekitaldiak trukearen bitartez Gabonetan jostailu aldaketa Proiektu bat aurrera eramateko erronka erakutsi Herritarrak ahalduntzea eta jardueren antolaketan parte hartzea Gazteak erakargarri sentsibilizatzeko leku bat, adibidez jolasak aktibitate errekreatioak egiteko (futbolina...) Heldu eta umeen arteko jakintza trukea Elkartrukearako gunea (liburuak, ezagutzak...) Auzoa berpizteko espazioa Harremantzeko alternatiba Charlas intergeneracionales. Trasmisión de valores desde los más mayores a los más pequeños (Norberaren lana besteekin) Bakarkako lanak besteekin konpartitzeko espazioa (prozesu kreatiboan, musikan, antzerkian) Nerabe eta gazteentzako gauzez atek ireki asteburuan

Erabilera

Eibarko elkarteek beste leku gehiago bere ekintza garatu ahal izateko (laburmetraiak proiektatzeko adibidez)

Agian asko amestea da baina, auzo etxe hau, sare baten barruan egongo balitz, udaleko zerbitzuak deszentralizatzeko eta auzoetara gerturatzeko balio beharko lukete. Liburutegia aipatu da, baina gizarte zerbitzuak ere auzoetara gerturatu behar dira. Adibidez, nagusi asko portalera joateko zailtasuna!

Lugar para leer y aprender a hacerlo

5. Jardueren proposamena eta erakusketa: eraikinaren eraldaketa beharrak aurreikusteko

Ondorengo ariketa izan da eraikinean aurrera eraman daitezkeen ekintzen zerrenda osatzea. Ez planifikazioa egiten hasteko, eraikinaren moldaketa beharrak aurreikusteko baizik.

Horretarako, horman talde eragileko kideek aurretiaz jasotako 9 proposamen zehatz jarri dira, espazioan burutu daitezkeen proiektuak erakusteko. Hauek ikusteko aukera izan dute eta ondoren, bestelako proposamenak proposatzeko denbora tarte bat eman da. Horretarako, materiala eta jarduerak biltzeko fitxak jarri dira eskuragarri. 23 jarduera berri proposatu dira guztira, eta, ondorioz, 32 jarduera proposamen daude orotara. Ondoren, jarduera guztiak taldekatu egin dira jarduera motaren arabera*:

(*Oharra: jardueren fitxa guztiak eranskin gisa gehitu dira akta honekin batera).

JARDUERA MOTAK
Emanaldiak
Ikuskizunak
Ikastaroak
Tailerrak
Bilguneak
Aisialdia; topalekuak, egongela...
Bestelakoak



6. Jarduerak eraikinen planora eramateko ariketa

Hurrengo pausoa izan da taldeak osatzea eta proposatu diren jarduera horiek eraikinaren aukeretara egokitzeko proposamenak egitea planoen gainean. Ondoren, talde bakoitzak landutakoa taldean konpartitu du.

(*Oharra: planoen lanketak eranskin gisa gehitu dira akta honekin batera).



eskatu da.

Laburpen gisa, hauek dira ondorio nagusiak:

- Erabilera anitzeko gelak
- Emanaldi ezberdinetarako gune polibalenteak
- Modulartasuna landu
- Erdiko plantako ezker paretak kendu espazioa irabazteko
- Beheko solairuan sukaldia egiteko aukera aztertu
- Tabernaren inguruan eztabaida egon da, aldekoak eta kontrakoak agertu dira.
- Goiko solairuan espazio librerako eta egoteko lekuak aurreikusi dira: liburutegia, sofak, ...
- Bertako artistentzat lan lekuak egoteko aukera



HURRENGO PAUSOAK

Hurrengo pausoa izango dira saio honen ondorioak talde eragilean lantzea eta hurrengo saioa prestatzea.

Hurrengo saioa **martxoaren 4an, arratsaldeko 18:00tan** izango da Ipuruako merkatuan.

SAIOAREN BALORAZIOA

Amaitzeko, saioaren balorazioa egin dute parte-hartzaileek. Hau izan da emaitza:

										
<ul style="list-style-type: none"> • Parte hartze prozesu egokia • Oso interesantea. Horrelako ekintzak denei zabaltzea eta lortutako partaidetza. Zorionak benetan. • Participación • Jende asko eta ideia askorekin • Oso dinamiko eta aberasgarria. Denen ideia/iritziak jasotzeko momentu/bideak sortu dira • Idei asko • Oso ondo eta gustuko saio informatiboa, eskerrik asko!! • Zorionak lan onari eta animo pila. Auzotarrak prest gaituzue partaidetzarako. Mila esker! • Oso ondo • Balorazio oso ona. Igual 3 bileretan dena antolatzea zaila iruditzen zait. Baina aurrera eta lanera! 					<ul style="list-style-type: none"> • Denbora luzeegia • Ezin ezer esan • Hizkuntzarekin betiko arazoa... jende asko "kanpoan" geratu da hasieratik... • Udal ordezkariak, baina ez dakite norarte nahi duten sartu • Erdaraz hitz egitea gehiago faltan bota dut 					
Orokorrean	1	2	3	4	5	6	7 I	8 III	9 IIII I	10 IIII III
BATAZ BESTEKO BALORAZIOA: 9.2										